



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko maiatzaren 17a

59. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Toki ogasunek Nafarroako tributueta parte hartzeko funtsari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2018),  
Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2018), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Barzorde Iraunkorak, 2019ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2018) egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2018), Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa (3. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa (8. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (9. or.).
  - IV.1. Iritzia (9. or.).
  - IV.2. Transferentzia arruntetarako funtsaren eta zenbait adierazleen bilakaeraren azterketa udalerrien lagin baterako (2009-2017) (9 or.).
  - IV.3. Funtsaren kudeaketaren konparaziozko azterketa, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artekoa (14. or.).
  - IV.4. Amaierako konklusioa eta gomendioak (18. or.).
1. eranskina. Funtsaren kudeaketari 2009-2019 aldian aplikagarri zaion oinarrizko araudia (20. or.).
2. eranskina. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa banatzeko formularen osagaien legenda (21. or.).
3. eranskina. Udalerrri bakoitzeko adierazleen bilakaera 2009-2017 aldian (22. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak 2018ko urteko fiskalizazio programan sartu zuen txosten bat egitea toki ogasunek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsaren banaketari buruz.

Lana 2019ko urtarriletik otsailera egin zuen auditoretzako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, funtsarekin zerikusia duten alderdi orokorrak deskribatzen dira eta, hirugarrenean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa bilzen dira. Laugarrenean, berriz, jasotzen dira funtsaren kudeaketari buruzko iritzia, hura banatzeko erabilitako formularen gaineko ondorioak finantzaketaren ikuspuntutik, Nafarroako kudeaketaren eta Euskal Autonomia Erkidegokoaren (aurrerantzean EAE) konparaziozko azterketa eta emandako gomendioak.

Horretaz gain, gure txostenak hiru eranskin ditu, jasotzen dituztenak 2009-2019 aldian funtsaren kudeaketari aplikatzekoa zaion oinarrizko araudia, funtsaren banaketarako formularen osagarrien deskribapena eta adierazle jakin batzuek 2009-2017 aldian izan duten bilakaera udalerrien lagin baterako.

Eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko Kudeaketa eta Lankidetzako Ekonomikorako Zerbitzuko langileei, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziokoei, Herri-kontuen Euskal Epaitegikoei, Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Azterlanetarako eta Toki Erakundeentzako Ekonomia Laguntzarako Zerbitzuko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzuko, Arabako Foru Aldundiko Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuko eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartekoei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak ezagutzera eman ziren, Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko kontseilariak alegazioak aurkeztuz. Horiek aurkezteko epea bete denean, ez da inongo alegaziorik aurkeztu.

## II. TOKI OGASUNEK NAFARROAKO TRIBUTUETAN PARTE HARTZEKO FUNTSA

### Funtsaren zenbatekoaren zehaztapena

Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua udalerrien autonomia bermatzen du eta 142. artikuluan ondokoa ezartzen da:

*“Nafarroako toki ogasunek behar adinako baliabideak izanen dituzte legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko, eta, funtsean, beren tributu propioez eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetakoetan parte hartuz hornituko dira”.*

Nafarroan aplikatzekoa den foru araubidearen ezaugarri da, besteak beste, Hitzarmen Ekonomikoan arautzen den finantzaketa eredu berezia, gainerako autonomia erkidegoetan ez bezala, haietan sistema desberdina baita, EAEn izan ezik; erkidego horretan Ekonomia Ituna da erabiltzen den tresna.

Hitzarmen Ekonomikoaren 50. artikuluan ezartzen denez, Nafarroako toki entitateek partaide-tza izanen dute Estatuaren tributu bidezko diru-sarreretan, Foru Komunitateak ordainarazten ez dituen tributuei dagokien zatian; kontuan hartuta Hitzarmenak Nafarroari esleitzen diola tributu gehienak ezarri eta kudeatzeko ahalmena, toki ogasunek jasotzen dituzten tributueta partaide-tza funtsean Nafarroatik dator, eta, hondarreko aukera gisa, Estatutik.

1981ean toki ogasunen erreformarako arauak lehenbizikoz arautu zituen Nafarroako toki ogasunak, eta ezarri zuen horiek jasoko zutela urteko funts bat, Foru Komunitateak ekitaldi bakoi-

tzean likidatutako zuzeneko zergen aitorturiko eskubide garbien ehuneko 45ak eta zeharkakoen eskubide garbien ehuneko 10ak osatua. Halaber, ezarri zen funts horren ehuneko 70 transferentzia arruntetarako erabiliko zela eta gainerako ehuneko 30a, berriz, kapital-transferentzietarako.

Funtsa kalkulatzeko irizpide hau bi urtez mantendu zen eta, geroago, zenbatekoa doitu egin zen; hala, 1984an, zerga zuzenen eta zeharkakoen aitorturiko eskubide garbien ehuneko 30ak eta ehuneko 10ak osatzen zuten, hurrenez hurren. Urte horretan bertan aldatu ziren transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien arteko banaketa-ehunekoak ere, eta ehuneko 60 eta ehuneko 40 izatera pasa ziren.

1984tik aurrera, transferentzia arruntetarako funtsaren zuzkidura lortzen zen aurreko ekitaldiko zenbatekoari KPIa aplikatuta, Nafarroan likidaturiko zergen aitorturiko eskubide garbiak aintzat hartu gabe. Kapital-transferentzien funtsa, berriz, aurrekontuko diruaren arabera zehazten zen.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 259.2 artikulua honako hau zioen:

*“...Nafarroako toki entitateek beren eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaie, toki ogasunei buruzko foru lege batek arauturik. Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Nafarroako toki araubideari berez dagozkie toki ogasun horiek.*

*Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Legearen 20.2 artikulua ezartzen duenez, foru lege hori onesteko gehiengo absolutua beharko da.”*

Hala, 1981ko araudia indargabeturik geratu zen Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea onestearekin. Lege horren 123. artikulua arautu zuen zenbatekoa zen Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza; zehazki, ezartzen zuen ezen udal agintaldi bakoitzaren lehen urteko azken hiruhilekoan Nafarroako Gobernuak Foru Parlamentuari arau-proiektu bat igorriko ziola, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren. Arauproiektu horretan zehaztuko zen, hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietarako, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta, justizia eta proportzionaltasun irizpideetan oinarriturik, funts hori banatzeko formula ere bai.

Esparru horren barruan onetsi ziren hurrengo legeak, toki ogasunek transferentzia arruntetarako funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula. Zehazki, 2009-2018 aldian funtsaren kudeaketari aplikatzekoa zaion araudia da txosten honen I. Eranskinean agertzen dena.

Arau horien artean nabarmentzekoa da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea, zeinak aldatzen baitu funtsaren zenbatekoa kalkulatzeko irizpidea; izan ere, berriro hartuko da kontuan Nafarroako likidaturiko zergen aitorturiko eskubide garbien ehuneko bat, modu honetan:

*“...Nafarroako udalerriek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetatik diru-sarreretan parte hartuko dute, sarrera guztien ehuneko finko bat hartuz urtero, zehaztutako hauekin bat:*

a) *Portzentaje hori Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen foru legerian ezarriko da, eta, behin Nafarroako Foru Komunitateak Estatuari egin beharreko ekarpen ekonomikoa kenduta, kalkulatu da Nafarroako toki entitateen eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean unean-unean indarrean dagoen eskumen-banaketa-erabera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat.*

b) *Nafarroako toki entitateen artean banatu beharreko oinarria kalkulatzeko erreferentziatzat hartuko dira kasuan kasuko aurrekontua onetsi aurretik Ogasun Publikoak itxiztako azken kontabilitate ekitaldian izandako tributuetatik diru-sarrerak”.*

**Transferentzia arruntetarako funtsaren banaketa**

2017ra arte, toki ogasunek hiru hilabetez behin jaso zituzten formula birbanatzaile baten bidez lortutako kopuruak, transferentzia arruntetarako funtsa gisa. 2018tik aurrera, berriz, sei hilabetez behin jaso zituzten.

Hauek izan ziren transferentzia arruntetarako funtsa toki ogasunen artean banatzeko aintzat harturiko aldagaiak eta haien haztapenak banaketa ezarri zenetik 2000. urtera arte:

| Urtea     | Biztanleak                      | Etxebizitza kopurua | Hezkuntza-gastuak | Montepioa | Presio fiskala | Ahalegin fiskala | Gastua azaltzeko aldagaia | Herrilurren katas-troko balioa | Guztizkoa |
|-----------|---------------------------------|---------------------|-------------------|-----------|----------------|------------------|---------------------------|--------------------------------|-----------|
| 1984      | % 75                            | % 25                | -                 | -         | -              | -                | -                         | -                              | % 100     |
| 1985      | % 65                            | % 10                | % 7               | % 18      | -              | -                | -                         | -                              | % 100     |
| 1986      | % 65                            |                     | % 7               | % 18      | % 10           | -                | -                         | -                              | % 100     |
| 1987      | % 90 1986ko banaketaren arabera |                     |                   | -         | -              | % 10             | -                         | -                              | % 100     |
| 1989-95   | % 63                            | -                   | % 6,5             | % 16,5    | % 14           | -                | -                         | -                              | % 100     |
| 1996-97   | % 63,5                          | -                   | % 6,2             | % 16,8    | % 9,4          | % 4,1            | -                         | -                              | % 100     |
| 1998-2000 | % 62                            |                     |                   |           |                | % 15             | % 24                      | % -1                           | % 100     |

Ikusten denez, bai aldagaiak bai haien partaidetza-ehunekoak era esanguratsuan aldatzen joan ziren aldi horretan.

2000ko urrian, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu ondoren, Nafarroako Unibertsitate Publikoak txosten bat prestatu zuen Toki Administrazioiko Departamentuarentzat, eta bertan proposatzen zuen transferentzia arruntetarako funtsaren banaketan ekitate horizontalaren printzipioa aplikatzen zuen formula bat, zeinaren bidez funts hori banatuko zen toki entitate bakoitzaren gastu beharren arabera eta ahalmen fiskalaren alderantzizko proportzioan; horrela bermatzen zen gehiago jasoko zuela gastu behar handiagoa eta/edo baliabide berekiak eskuratzeko ahalmen txikiagoa zuenak.

Departamentuak formula hori hartu zuen, eta hori da 2004tik gaur egunera arte erabili dena.

Geroago, bai 2004an bai 2008an, azterlan horren emaitzen berrikusketak egin ziren, aldagaien baliagarritasuna berresteko eta haien haztapenen balioa eguneratzeko toki entitateen kontabilitateari buruzko informazio gaurkotuagoa erabilita, baina ez dago jasota harrezkero eguneratzerik edo berrikusketarik egin denik.

Zehazki, hau da formula aplikatzeko prozedura berrikusketa horien ondoren:

1) Sei aldagai linealki konbinatuz lortzen da gastu beharren indizea, estatistikoki frogatu baita horiek direla eraginik handiena dutenak tokiko gastu arruntean, haietako bakoitzaren gastua esplikatzeko ahalmenaren bidez ponderaturik.

Hona hemen aldagaiak eta haien haztapena:

| Gastu beharren aldagaia  | Haztapena |
|--|-----------|
| Biztanleak   | 0,9231    |
| Hiri azalera garbia  | 0,3355    |
| 65 urtetik gorakoak  | 0,1278    |
| Etorkinak  | 0,1341    |
| Udalerriko kontzentrazio indizearen alderantzizkoa (dispertsioa) | 0,0083    |
| Azalera osoa   | 0,0074    |

2) Ahalmen fiskalaren indizea lortzea bost aldagaien konbinazio linealaren bidez, aldagai horietako bakoitzaren aitorturiko eskubide garbiek bosta sarrera motetako aitorturiko eskubide garbi guztiekiko duten garrantziaren arabera ponderaturik. Hona hemen aldagaiak eta haien haztapena:

| Ahalmen fiskalaren aldagaia (diru-sarrerak lortzea)   | Haztapena |
|---|-----------|
| Hiri-lurren zerga-oinarria                            | -0,2490   |
| Landa-lurren zerga-oinarria                           | -0,0222   |
| Zirkulazio zergaren zerga-oinarria                    | -0,0995   |
| Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri fiskala | -0,0760   |
| Herri-lurren katastroko balioa                        | -0,0895   |

3) Udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko ondoko formula lortzea, gastu beharren indizeari kenduta ahalmen fiskalaren indizea 0,3491 faktorearekin ponderatuta:

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,3355 \times PURB + 0,1278 \times PMA65 + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINVDISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0995 \times PIVTM - 0,0760 \times PIAE - 0,0895 \times PVCC.$$

Formula honen osagaien legenda txosten honekin batera doan 2. eranskinean dago jasota.

2009-2019 aldian, transferentzia arruntetarako funtsa formula honi jarraikiz banatu da, ondoko irizpideen arabera:

| Aldia     | Araudia  | Formularen erabilera | Banaketa sistema  |
|-----------|--|----------------------|---|
| 2009-2014 | 19/2008 Foru Legea<br>18/2011 Foru Legea<br>20/2012 Foru Legea<br>17/2014 Foru Legea<br>30/2014 Foru Legea | Bai                  | Hiru maila:<br>1) Iruñeko udalerriri dagokion esleipena.<br>2) Funtsaren gainerakoa beste udalerrien artean banatzen da, formularen arabera.<br>3) Kontzejuei beren udalerriri dagokion funtsaren ehuneko 30 esleitzen zaie, eta populazioaren arabera banatzen da.   |
| 2015-2017 | 21/2014 Foru Legea<br>24/2015 Foru Legea<br>21/2016 Foru Legea   | Ez                   | Aurreko urtean jasotako zenbatekotik abiatuta, zenbateko hori funtsa handitu den proportzio berean handitzen da.  |
| 2018-2019 | 18/2017 Foru Legea   | Bai                  | Bi maila:<br>1) Funtsa udalerrien artean banatzen da, Iruñea barne, formularen arabera.<br>3) Kontzejuei beren udalerriri dagokion funtsaren ehuneko 30 esleitzen zaie, eta populazioaren arabera banatzen da.<br>Ponentziaren berrikuspen prozesua hasi ez duten udalerrien zenbatekoa ehuneko 10 murriztuko da. |

Formula 2009-2014 eta 2018-2019 aldietan aplikatu zen, nahiz eta 2015-2017 urteetan ez zen erabili, eta udalerrri bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa aurreko urtean jasotakoaren arabera zehazten zen.

Arestian aipaturiko 4/2019 Foru Legeak ere funtsaren banaketarako irizpidea aldatu zuen; zehazki, hauxe ezarri zuen:

*“... Toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen zenbatekoa hauen bi-tartez banatuko zaie entitate horiei:*

*a) Transferentzia arruntak, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak finantzatzekoak, Nafarroako Gobernuak finantzaketa moduluak ezarri dituen horietarako. Aipaturiko transferentzien zenbatekoa modulu horiek ezartzen dutenaren arabera izanen da.*

*b) Kapital transferentziak, Nafarroako Gobernuak onetsitako Toki Azpiegituren Plan Zuzendariei lotutako inbertsioak finantzatzekoak, plan horietan zehazten baita kasuko zerbitzuko estrategia, udalerriaz haragoko lurralde esparrurako.*

c) *Libreki erabaki beharreko zenbateko bat, toki entitate bakoitzari esleituko zaiona printzipio hauekin bat: justizia, proportzionaltasuna, kohesio soziala, lurralde oreka eta finantza askitasuna. Toki entitate bakoitzak erabakiko du, bere autonomiaz baliatuz, zenbateko horren erabilera, eta aplikatzen ahalko du bai bere gastu arrunta finantzatzeko, bai azpiegiturako inbertsioak finantzatzeko. Esleipen horretarako irizpideak foru lege bidez ezarriko dira.*

d) *Finantzaketarako lerro espezifikoak; besteak beste, honakoak, gutxienez ere:*

- *Hiriburutza Agirien sistemak.*

- *Nafarroako toki entitateen ordezkartasuna duten elkarte edo federazioentzako laguntza ekonomikoak, Foru Komunitatean duten ezarpenaren proportzioan.*

- *Hautetsi-zereginetako jardunaren kontzeptuan toki entitateek ordaindutako zenbatekoen konpentsazioa.*

3. *Funtsaren zuzkidura, eguneratze-modua eta indarraldia ezartzen dituen foru legeak ezarriko du, halaber, banaketa-formula, zeinak kontuan hartu beharreko banaketa-aldagaiak zehaztuko baititu, artikulua honen bigarren paragrafoko c) apartatuan azaldutako printzipioetan oinarrituta.*

Bada aldaketa esanguratsu bat transferentzia arruntetarako funtsaren banaketari dagokionez; izan ere, c) atalaren arabera formularen bidezko banaketa egiteaz gain, arauak ezartzen du esleipena eginen dela Nafarroako Gobernuak zortzigarren xedapen iragankorren zehazturiko zerbitzuetarako (montepioak, eskola-kontzentrazioak eta hezkuntza-erabilerarako udal eraikinen funtzionamendu gastuak, musika eskolak, haur eskolak eta abar) onetsitako finantzaketa moduluaren arabera.

Xedapen horrek ezartzen du, halaber, 2019ko abenduaren 31a baino lehen Nafarroako Gobernuak finantzaketa proposamen bat igorriko duela Parlamentura, gaur egungo dirulaguntza finalisten ordezkari finantzaketa moduluak ezartzeko pixkanaka. Bestalde, hamaikagarren xedapen iragankor adierazten du Nafarroako toki entitateek bost urteko epean gehienez ere, ematen dituzten zerbitzuen kostuei buruzko kontabilitate-analisia egiteko sistema bat jarri beharko dute, eta horren emaitzak erreferentzia gisa erabiliko dira zerbitzu horietarako finantzaketa-modulu desberdinak ezartzeko.

Txosten hau idatzi den egunean, oro har, ez da taxutu kostuen sistema homogeen bat Nafarroako toki entitateetarako, ez eta araudian aurreikusitako finantzaketa-moduluak kalkulatu ere.

Halaber, esan behar dugu balio katastralak eguneratu gabe dituzten edo balio horiek berrikus-teko 18/2017 Foru Legean ezarritako Ponentziaren berrikuspen prozesua hasi ez duten udalerriei transferentzia arruntetarako jaso beharreko zenbatekoan ezarri beharreko ehuneko 10eko murrizketaz gain, lege horrek ezartzen duela katastro-balorazioko txostenak eguneratu beharko dira onetsi edo berrikusi zirenetik gehieneko epea iragan denean, eta arau horren urraketa negatiboki ponderatzen ahalko dela transferentzia arruntetarako funtsaren banaketan.

#### **Araudian aurreikusitako berme sistema**

Transferentzia arruntetarako funtsaren banaketa arautzen duen araudiak berme sistema bat ezartzen du 2002tik, aipatu formula aplikatzen hasi zenetik gaur egunera arte. Hona sistema horren ezaugarriak:

- Udalerrri batek jaso beharreko zenbatekoa ez da izanen inolaz ere aurreko ekitaldiko banaketan jasotakoa baino txikiagoa; are gehiago, ekitaldiren batean zenbateko hori KPIa aintzat hartuta handitu zen.

- KPIa negatiboa izanez gero, aurreko ekitaldian jasotako zenbatekoa bermatzen da.

- Baldin eta funtseko partaidetzatik, udal bati hasieran esleitutako kopurua aurreko idatziztatietan ezarritako bermea adinakoa ez bada, behar diren kopuruak kenduko zaizkie, hasieran esleituak zituztenetatik, bermatutakotik goitiko kopuruak lortzen dituzten udalerriei, bakoitzari dagokion bermearekin alderaturik lortutako igoeraren arabera proportzioan.

### III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Honako hauek izan ziren lan honen helburuak:

- Arrazoizko segurtasun terminoetan legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretza-iritzia ematea eta egiaztatzea funtsaren kudeaketa aplikagarri zaion araudiaren arabera izan den.

- Udalerrien lagin batek 2009-2017 urteetan izandako bilakaera aztertzea, ondoko datuei begira: transferentzia arruntetarako funtsaren benetako zenbatekoa eta jasoko luketena formula aplikatuta, kontuan hartu gabe berme sistema, diru-sarrerak, zerga diru-sarrerak, aurrezki gordina eta populazioa.

- Aldeztea transferentzia arruntetarako funtsaren kudeaketa Nafarroan eta EAE osatzen duten probintzietan 2009-2018 aldian.

Gure lanak 2009-2018 aldia hartzen du; hala ere, udalerrien laginaren diru-sarrerak, zerga diru-sarrerak, funtzionamendu gastuak eta aurrezki gordina 2017ra arte aztertu dira, entitate horiek oraindik onetsi gabe baitituzte 2018ko kontuak. Gainera, aurreko ekitaldiei buruzko zenbait alderdi ere hartu ditugu kontuan funtsaren zenbatekoaren bilakaera eta udalerrien artean banatzeko modua aztertzerakoan.

Gure lana egiteko, jarraian zehazten den informazioa aztertu dugu:

- Funtzari aplikatzekoa zaion araudia.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak eginiko azterlana, transferentzia arruntetarako funtsa Foru Komunitateko udalerrien artean banatzeko formula taxutzekoa.
- Funtzarekin zerikusia duten aurrekontu-partiden betetzea 2009-2018 aldirako, bai Nafarroan bai EAEn.
- Transferentzia arruntetarako funtsaren udalerrien arteko banaketa, formula erabilita lorturikoa, formula erabili zen aldirarako.
- 2009-2018 aldiko urteetako urtarrilaren 1eko populazioa, bai Nafarroakoa bai EAeko, Estadistikako Institutu Nazionalaren arabera.
- 25 udalerriko multzo batean diru-sarrerak, zerga diru-sarrerak, funtzionamendu gastuak eta aurrezki gordinak 2009-2017 aldian izandako bilakaera. Udalerri horien artean sartu dira 9.000 biztanletik gorakoak eta beste batzuk, aipatu populazio tartea ez beste batzuetakoak, biztanle kopuruaren aldaketa positiboak edo negatiboak zituztenak.

Datu horiek eskuratu dira Toki Administrazioako Departamentuak tokiko sektore publikoari buruz egiten dituen txostenetatik eta IDECAL datu plataformatik, zeinaren bidez Nafarroako toki entitateek beren kontuak igortzen dizkiote Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari.



#### **IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK**

##### **IV.1. IRITZIA**

###### **Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna**

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak bermatu behar du funtsaren kudeaketa aplikatzekoak zaizkion arauen arabera dela. Halaber, aztertutako kudeaketa horretan iruzurraren edo okerren ondorioz legezko ez-betetzirik eta huts materialik ez egoteko beharrezkotzat jotzen den barne kontrolaren erantzulea da.

###### **Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna**

Gure ardura da iritzi bat ematea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak 2009-2018 aldian eginiko funtsaren kudeaketaren legezkontasunari buruz, gure auditoretzan oinarrituta.

Erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizatorako oinarritzko printzipioen arabera, "Legea betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 400 araua, hain zuzen. Araudi horrek exijitzen du etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta auditoretzaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, arrazoizko segurtasun bat lortze aldera, funtsaren kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatearen gainekoa.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortzeko eragiketen legezkontasunari buruz. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuen balorazioa, legezkontasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak aipatu betetzea bermatzeko beharrezkoa den barne kontrola hartzen du kontuan inguruabarren arabera auditoretza prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du betetzeari buruzko gure auditoretza-iritzia emateko.

###### **Legeriaren betetzeari buruzko iritzia**

Gure iritzian, 2009-2018 aldiari dagokion funtsaren kudeaketa arau indardunen arabera da alderdi adierazgarri guztietan.

##### **IV.2. TRANSFERENTZIA ARRUNTETARAKO FUNTSAREN ETA ZENBAIT ADIERAZLEEN BILAKAERAREN AZTERKETA UDALERRIEN LAGIN BATERAKO (2009-2017)**

2018ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako Foru Komunitateak 647.554 biztanle zituen, 272 udalerrian eta 346 kontzejutan bizi zirenak.

Udalerrri eta kontzejuetako populazioan badira alde nabarmenak; horregatik, transferentzia arruntetarako funtsaren bilakaera biztanleko aztertu dugu 2009-2018 aldian biztanleria-tarte baikoitzerako, eta Iruña eta Tuterak bakarka hartu ditugu, populazio handia baitute gainerako udalerrien aldean. Gure azterketan ondoko udalerrri konposatuak sartu ditugu: Eguesibar, Berriobeiti, Noain (Elortzibar), Aranguren eta Zangoza; gainerako 55 udalerrri konposatuak ez dira aintzat hartu, horiek sartzeko lortutako emaitzak nabarmen distorsionatzea baitzekarren. Hona hemen emaitzak:

| Biztanleria-tartea<br>(biztanleak) | Udalerrri<br>kopurua | Transferentzia arruntetarako funtsa biztanleko |      |      |      |      |      |      |      |      |      | Aldaketa,<br>ehunekotan<br>2018/2009 |
|------------------------------------|----------------------|--|------|------|------|------|------|------|------|------|------|--------------------------------------|
|                                    |                      | 2009   | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |                                      |
| Iruña (199.066)*                   | 1                    | 373  | 378  | 380  | 383  | 392  | 402  | 402  | 410  | 412  | 417  | 12                                   |
| Tutera (35.393)*                   | 1                    | 267  | 263  | 259  | 259  | 259  | 263  | 260  | 267  | 269  | 276  | 3                                    |
| 18.000 eta 23.000<br>bitarte       | 2                    | 257  | 261  | 260  | 261  | 229  | 237  | 235  | 238  | 239  | 245  | -5                                   |
| 13.000 eta 17.999<br>bitarte       | 2                    | 253  | 209  | 207  | 204  | 247  | 250  | 248  | 252  | 254  | 263  | 4                                    |
| 8.500 eta 12.999<br>bitarte        | 5                    | 224  | 242  | 240  | 238  | 234  | 241  | 240  | 242  | 244  | 250  | 12                                   |
| 7.000 eta 8.499<br>bitarte         | 5                    | 251  | 241  | 241  | 240  | 256  | 264  | 265  | 271  | 273  | 257  | 2                                    |
| 5.800 eta 6.999<br>bitarte         | 4                    | 213  | 220  | 218  | 195  | 203  | 212  | 213  | 215  | 216  | 268  | 26                                   |
| 4.700 eta 5.799<br>bitarte         | 2                    | 263  | 217  | 213  | 264  | 272  | 276  | 278  | 284  | 288  | 313  | 19                                   |
| 4.000 eta 4.699<br>bitarte         | 3                    | 199  | 199  | 239  | 242  | 242  | 243  | 246  | 250  | 251  | 267  | 34                                   |
| 3.500 eta 3.999<br>bitarte         | 8                    | 258  | 246  | 244  | 244  | 249  | 255  | 255  | 259  | 261  | 267  | 3                                    |
| 3.000 eta 3.499<br>bitarte         | 4                    | 202  | 234  | 239  | 235  | 243  | 253  | 257  | 263  | 263  | 277  | 37                                   |
| 2.500 eta 2.999<br>bitarte         | 10                   | 251  | 248  | 248  | 251  | 257  | 264  | 266  | 269  | 273  | 275  | 10                                   |
| 2.000 eta 2.499<br>bitarte         | 8                    | 266  | 267  | 272  | 272  | 279  | 283  | 286  | 288  | 297  | 304  | 14                                   |
| 1.500 eta 1.999<br>bitarte         | 5                    | 240  | 239  | 236  | 245  | 253  | 262  | 265  | 287  | 287  | 315  | 31                                   |
| 1.000 eta 1.499<br>bitarte         | 15                   | 280  | 280  | 278  | 282  | 289  | 298  | 302  | 311  | 311  | 318  | 14                                   |
| 500 eta 999 bitarte                | 24                   | 258  | 257  | 257  | 259  | 265  | 272  | 274  | 277  | 285  | 292  | 13                                   |
| 400 eta 499 bitarte                | 9                    | 238  | 237  | 251  | 250  | 246  | 253  | 252  | 286  | 294  | 298  | 25                                   |
| 300 eta 399 bitarte                | 16                   | 259  | 258  | 260  | 266  | 266  | 271  | 277  | 278  | 285  | 291  | 12                                   |
| 200 eta 299 bitarte                | 15                   | 297  | 297  | 294  | 296  | 315  | 325  | 321  | 335  | 339  | 359  | 21                                   |
| 100 eta 199 bitarte                | 47                   | 291  | 297  | 297  | 298  | 299  | 309  | 315  | 326  | 329  | 343  | 18                                   |
| 50 eta 99 bitarte                  | 21                   | 346  | 347  | 351  | 354  | 364  | 373  | 373  | 384  | 408  | 418  | 21                                   |
| 49 arte                            | 10                   | 369  | 379  | 378  | 395  | 411  | 406  | 422  | 437  | 453  | 497  | 35                                   |

\* Populazioa 2018ko urtarrilaren 1ean.

Aztertutako aldiko urte guztietan alde nabarmenak ikus daitezke populazio-tarteen artean begiraten badugu zein den funtsaren zenbatekoa biztanleko; zehazki, 2018an, zenbateko handienak, 400 euro ingurukoak, Iruñean eta populazio-tarte baxuenetan agertzen dira, eta, aldiz, zenbateko txikienak, 250 euro ingurukoak, 18.000-23.000 biztanleko eta 8.500-12.999 biztanleko tartetako udalerriei dagozkienak dira.

Biztanle-tarteen artean dauden aldeak ikusita, funtsaren zenbatekoaren bilakaera aztertu dugu, bai eta diru-sarrera arruntenak (funtsa aintzat hartu gabe), zerga bidezko diru-sarrerena, aurrezki gordinarena eta populazioarena ere, 25 udalerriko lagin batean. Udalerrri horien biztanleria Nafarroako biztanleria osoaren ehuneko 64 zen 2018ko urtarrilaren 1ean.

Zehazki, hauek dira gure azterketan kontuan hartutako udalerrriak: Iruña, Tutera, Barañain, Burlata, Eguesibar, Zizur Nagusia, Lizarra, Tafalla, Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Berriozar, Noain (Elortzibar), Uharte, Berriobeiti, Andosilla, Esteribar, Aiegi, Faltzes, Olazti, Lekunberri, Iza, Villatuerta, Mañeru eta Ollaran.

Txosten honekin batera doan 3. eranskinean azaltzen dira aztertutako udalerrri bakoitzerako lortutako datuak. Hurrengo orrialdean udalerrri bakoitzari buruzko informazioaren laburpen bat agertzen da ondoko adierazleen bidez:

- Biztanleria 2018ko urtarrilaren 1ean eta 2009ko biztanleriarekiko aldea.
- Transferentzia arruntetarako funtsa biztanleko udalerrri bakoitzean, 2009an eta 2018an, eta bi urte horien arteko aldea.
- Formula aplikatuz gero udalerrri bakoitzak jasoko lukeen transferentzia arruntetarako funtsa biztanleko, araudian ezarritako berme-sistema aintzat hartu gabe, 2009an eta 2018an, eta bi urte horien arteko aldea.
- Udalerrri bakoitzean 2018an jasotako transferentzia arruntetarako funtsaren eta berme-sistema aplikatu gabe jasoko lukeenaren arteko aldearen ehunekoa.
- Diru-sarrera arrunten aldearen ehunekoa 2009-2018 aldian.

| Udalerria          | Biztanlea<br>2018/01/01 | Aldea (%)<br>BIZTANLEAK<br>2018-2009 | Transferentzia arruntetarako funtsa biztanleko          |          |   |                            | % (a)/(b) | Diru-sarrera arrunten aldea,<br>ehunekotan<br>(transferentzia arruntetarako<br>funtsa gabe) 2017/2009 |          |  |     |
|--------------------|-------------------------|--------------------------------------|---|----------|---|----------------------------|-----------|---|----------|--|-----|
|                    |                         |                                      | Egiazki jasotako transferentzia<br>arruntetarako funtsa |          | Transferentzia arruntetarako funtsa,<br>formula berme-sistemarik gabe |                            |           |   |          |  |     |
|                    |                         |                                      | 2009  | 2018 (a) | Aldaketa,<br>ehunekotan<br>2018/2009                                  | 2009                       |           |   | 2018 (b) | Aldaketa, ehu-<br>nekotan<br>2018/2009 |     |
| Iruña              | 199.066                 | 0,3                                  | 373   | 417      | 12  | Ez da<br>aplika-<br>tzekoa | 377       | 377   | -        | 12                                     | -5  |
| Tutera             | 35.593                  | 3                                    | 267   | 276      | 3   |                            | 223       | 299   | 34       | -8                                     | -3  |
| Eguesibar          | 20.417                  | 93                                   | 155   | 180      | 16  |                            | 213       | 240   | 13       | -25                                    | 58  |
| Barañain           | 20.039                  | -9                                   | 253   | 290      | 15  |                            | 224       | 280   | 25       | 4                                      | 4   |
| Burlata            | 18.934                  | 2                                    | 262   | 268      | 2   |                            | 216       | 270   | 25       | -1                                     | -4  |
| Zizur Nagusia      | 14.891                  | 12                                   | 248   | 242      | -2  |                            | 248       | 285   | 15       | -15                                    | 2   |
| Lizarra            | 13.673                  | -4                                   | 259   | 285      | 10  |                            | 226       | 321   | 42       | -11                                    | -14 |
| Antsoain           | 10.739                  | 2                                    | 220   | 249      | 13  |                            | 243       | 270   | 11       | -8                                     | 13  |
| Tafalla            | 10.605                  | -7                                   | 265   | 297      | 12  |                            | 226       | 260   | 15       | 14                                     | -16 |
| Aranguren          | 10.512                  | 47                                   | 211   | 186      | -12   |                            | 233       | 253   | 9        | -26                                    | -1  |
| Berriozar          | 10.167                  | 13                                   | 225   | 243      | 8   |                            | 258       | 282   | 9        | -14                                    | -34 |
| Atarrabia          | 10.150                  | -5                                   | 252   | 274      | 9   |                            | 214       | 272   | 27       | 1                                      | 19  |
| Noain (Elortzibar) | 8.224                   | 21                                   | 191   | 207      | 8   |                            | 217       | 246   | 14       | -16                                    | -1  |
| Uharte             | 7.014                   | 20                                   | 177   | 206      | 16  |                            | 219       | 248   | 13       | -17                                    | 45  |
| Berriobeiti        | 7.011                   | 61                                   | 128   | 170      | 32  |                            | 157       | 251   | 60       | -32                                    | 32  |
| Andosilla          | 2.715                   | -9                                   | 263   | 333      | 5   |                            | 323       | 350   | 3        | -5                                     | 2   |
| Esteribar          | 2.600                   | 24                                   | 281   | 286      | 27  |                            | 309       | 359   | 14       | -20                                    | 8   |
| Alegi              | 2.331                   | 40                                   | 245   | 244      | 2   |                            | 330       | 344   | 14       | -29                                    | 37  |
| Faltzes            | 2.306                   | -13                                  | 241   | 290      | -0,3  |                            | 301       | 212   | 20       | 37                                     | 6   |
| Lekunberri         | 1.535                   | 11                                   | 310   | 370      | 20  |                            | 261       | 508   | -7       | -27                                    | 10  |
| Olazti             | 1.497                   | -14                                  | 240   | 290      | 19  |                            | 380       | 272   | 83       | 7                                      | -17 |
| Itza               | 1.199                   | 22                                   | 312   | 354      | 21  |                            | 222       | 339   | 68       | 4                                      | -3  |
| Villatuerta        | 1.186                   | 11                                   | 304   | 303      | 14  |                            | 385       | 371   | 8        | -18                                    | -9  |
| Mañeru             | 437                     | 12                                   | 260   | 268      | -0,1  |                            | 310       | 248   | 45       | 8                                      | 38  |
| Ollaran            | 415                     | 51                                   | 448   | 393      | 3   |                            | 280       | 499   | 48       | -21                                    | 50  |

Datu horiek aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Alde nabarmenak daude, positiboak zein negatiboak, toki entitate bakoitzak jasotako transferentzia arruntetarako funtsaren eta arauak berme-sistematik ez balu egokituko litzaiokeenaren artean.

- Transferentzia arruntetarako funtsaren eta formularen arabera jasoko litzatekeenaren alde negatibo esanguratsuenak gertatzen dira populazio igoera nabarmenenak izan dituzten udalerrietan, hala nola Eguesibarren, Arangurenen, Berriobeitin edo Ollaranen.

Ekarpena egiteko betebeharrak, bermatutako zenbatekoak entitate guztietan bete daitezten, eragin nabarmena du biztanleriaren hazkunde tasa handiena duten udalerrri hauetan, ez baitaie aplikatzen transferentzia arruntetarako funtsean duten partaidetza-indizea eta berme-sistema hori izan ezean jasoko luketena baino zenbateko txikiagoa jasotzen baitute. Horrekin lotuta, kontuan hartu behar da, oro har, entitate horien diru-sarrerara arruntak, transferentzia arruntetarako funtsa aintzat hartu gabe, nabarmen hazi direla, baina diru-sarrera horiek osatzen dituzten kontzeptu guztiak ez daude banaketa-formulan sartuta.

- Horretaz gain, esan behar dugu Iruñeak zuela lagundu araudian aurreikusitako berme-sistema bete zedin, 2018ra arte ez baitzen sartu formularen banaketan, baina urte horretatik aurrera laguntzen ari da.

- Banaketa formularen sartuta ez dauden diru-sarrerara arruntak adibide bat dira eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergatik eta hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergatik eratorriak. Hona hemen 2009-2017 aldian toki entitateek zerga horiengatik izandako aitorturiko eskubide garbiak:

| Urtea | EIOZa      | Gainbalioa |
|-------|------------|------------|
| 2009  | 13.127.756 | 32.479.075 |
| 2010  | 15.877.792 | 28.564.445 |
| 2011  | 10.627.117 | 33.546.054 |
| 2012  | 10.607.410 | 22.726.211 |
| 2013  | 15.744.124 | 15.326.180 |
| 2014  | 16.261.844 | 14.215.223 |
| 2015  | 17.692.129 | 16.081.129 |
| 2016  | 20.833.355 | 18.577.416 |
| 2017  | 10.342.608 | 19.923.953 |

Zenbateko hauek batez beste toki entitateen zerga bidezko diru-sarreraren ehuneko 11 egiten badute ere aztertutako aldian, ez dira aldagaitzat hartzen transferentzia arruntetarako funtsa banatzeko formularen. Ezinezkoa da kalkulatzea zer eragin izanen lukeen horiek formularen sartzeak, ez baitakigu zein den aintzat hartuz gero erabili beharrezko haztapen-zenbatekoa.

- Jasotako transferentzia arruntetarako funtsaren eta berme-sistema aplikatu ezean udalerriri egokituko litzaiekeenaren arteko alde positiboak aztertutako aldian biztanleriaren beherakada izan duten udalerriei dagozkie; udalerrri horietan, batzuetan diru-sarrerara arruntek bilakaera positiboa izan dute aztertutako aldian –Barañainen, Atarrabian edo Faltzesen esaterako–, eta beste batzuetan negatiboa, adibidez, Tafallan edo Olaztin.

- Aurreikusitako berme-sistema eta transferentzia arruntetarako funtsaren zuzkidura direla eta –ez du igoera esanguratsurik izan aurrekontuan dagoen dirua dela eta–, egiazki formularen arabera banatzen den transferentzia arruntetarako funtsaren zenbatekoa hondarrekkoa da; hain zuzen, ehuneko 1ekoa da batez beste aztertutako aldian, koadro honetan ikus daitekeen moduan:

| Ekitaldia | Transferentzia arruntetarako funtsa | Berme-sistema aplikatuta banatutako transferentzia arruntetarako funtsa | Formularen arabera banatutako transferentzia arruntetarako funtsa | Formularen arabera banatutako transferentzia arruntetarako funtsaren ehuneko |
|-----------|-------------------------------------|---|---|--|
| 2009      | 161.251.719                         | 158.029.081   | 3.222.637   | 2  |
| 2010      | 162.269.106                         | 161.251.719   | 1.017.388   | 1  |
| 2011      | 163.452.012                         | 160.231.264   | 3.220.748   | 2  |
| 2012      | 164.480.533                         | 163.452.012   | 1.028.521   | 1  |
| 2013      | 168.058.331                         | 164.480.533   | 3.577.798   | 2  |
| 2014      | 171.474.537                         | 168.058.331   | 3.416.206   | 2  |
| 2015      | 171.474.537                         |   |   |  |
| 2016      | 174.732.553                         | Formula ez zen aplikatu   | Formula ez zen aplikatu   | -  |
| 2017      | 177.004.077                         |   |   |  |
| 2018      | 182.792.759                         | 180.721.163   | 2.071.596   | 1  |

Araudian ezarritako berme-sistema horrek aurreko orrialdeko koadroan agertzen direnak bezalako inkoherentziak sortzen ditu; izan ere, antzeko biztanleria duten udalerriek transferentzia arruntetarako funtsetik jasotzen dituzten zenbatekoak desberdinak dira eta ez dago korrelaziorik biztanleriaren aldakuntzaren eta transferentzia arruntetarako funtsaren aldakuntzaren artean.

#### IV.3. FUNTSAREN KUDEAKETAREN KONPARAZIOZKO AZTERKETA, NAFARROAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARTEKOA

##### Funtsa biztanleko

Nafarroako biztanleko funtsaren zenbatekoa alderatu dugu (bai transferentzia arruntetarako funtsarena bai kapitaleko transferentzietarakoarena) EAEko hiru probintzietakoarekin eta erkidego osokoarekin, bi erkidegoen finantzaketa eredu antzekoa baitute, batak Hitzarmenaren bidez eta besteak Itun Ekonomikoaren bidez.

Nafarroaren kasuan, transferentzia arruntetarako funtsarekin eta kapital transferentzienarekin zerikusia duten aurrekontu-partiden zenbatekoak aztertu ditugu, eta horiei gehitu dizkiegu toki ogasunek eskola-kontzentrazioengatik jasotzen dituzten dirulaguntzetatik datozenak eta hautesien ordainsariei buruzkoak, EAErekiko alderaketa homoginoa izan zedin.

EAEEn, funtsaren zenbatekoa prozedura honen bidez zehazten da: itundutako zergen aitortutako eskubide garbiei kentzen zaio Estatuari Itun Ekonomikoaren bidez egiten zaion ekarpena; ehuneko 70 gutxi gorabehera Eusko Jaurlaritzaren finantzaketara bideratzen da, eta gainerako ehuneko 30a Foru Aldundietara. Azken zenbateko hori probintzien artean banatzen da urtero ezarritako ehuneko batzuen arabera. Ondoren, diputazio bakoitzak jaso duen zenbatekoaren ehuneko bat bideratzen du toki ogasunen finantzaketara: zehazki, Arabak ehuneko 57, Bizkaia ehuneko 56 eta Gipuzkoak ehuneko 58.

Gogoeta horiek guztiak kontuan hartuta, Nafarroako eta EAEko biztanleko funtsa kalkulatu dugu 2009-2018 aldirako. Hona hemen emaitzak:

|            | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| Nafarroa   | 377  | 370  | 320  | 351  | 335  | 336  | 335  | 332  | 347  | 378  |
| Araba      | 540  | 650  | 562  | 588  | 527  | 604  | 640  | 618  | 708  | 724  |
| Bizkaia    | 582  | 650  | 633  | 655  | 633  | 652  | 640  | 663  | 702  | 755  |
| Gipuzkoa   | 489  | 554  | 501  | 535  | 538  | 585  | 609  | 625  | 650  | 713  |
| EAE (osoa) | 546  | 619  | 580  | 606  | 587  | 623  | 630  | 644  | 686  | 737  |

Datu horiek aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Aztertutako urte guztietan Nafarroako biztanleko funtsa nabarmen txikiagoa da EAEko hiru probintzietako edozeinekin edo EAE osokoarekin alderatuta.
- 2018an, Nafarroako biztanleko funtsa 378 eurokoa da; hots, EAEko hiru probintzietako edozeini dagokionaren erdia. Alde horiek berdintsu mantentzen dira aztertutako gainerako urteetan.

- Nafarroako biztanleko funtsak ez du aldaketa esanguratsurik aztertutako aldiari; izan ere, 2018koa 2009koaren oso antzekoa da (377 euro). EAEn, berriz, 2018an 737koa da batez beste, 2009ko zenbateko baino ehuneko 37 handiagoa.

### Biztanleko funtsa probintzia-hiriburu eta biztanleria-tarte bakoitzean.

Bi erkidegoen artean hain alde nabarmenak daudenez biztanleko funtsari dagokionez, probintzia-hiriburuetakoko biztanleko funtsa alderatu dugu –erkidegoko hiriburukoa, Nafarroaren kasuan– biztanleria-tarte bakoitzean, jakiteko desberdintasunak biztanleria-tarte jakin batean kontzentratzen ote ziren.

Eraitza hauek lortu ditugu:

- Ondoren agertzen den koadroan adierazten dira hiriburuetakoko biztanleriaren, funtsaren eta biztanleko funtsaren arteko desberdintasunak:

| Udalerria | Biztanleak |         |                     | Funtsa      |             |                     | Funtsa biztanleko |      |                     |
|-----------|------------|---------|---------------------|-------------|-------------|---------------------|-------------------|------|---------------------|
|           | 2009       | 2018    | 2018/2009 aldea (%) | 2009        | 2018        | 2018/2009 aldea (%) | 2009              | 2018 | 2018/2009 aldea (%) |
| Iruña     | 198.491    | 199.066 | 0,3                 | 83.432.516  | 83.215.611  | -0,3                | 420               | 418  | -0,5                |
| Gasteiz   | 235.661    | 249.176 | 6                   | 123.677.473 | 165.360.008 | 34                  | 525               | 664  | 26                  |
| Bilbo     | 354.860    | 345.821 | -3                  | 254.560.622 | 329.185.720 | 29                  | 717               | 952  | 33                  |
| Donostia  | 185.357    | 186.665 | 0,7                 | 95.101.876  | 140.017.197 | 47                  | 513               | 750  | 46                  |

Ikusten denez, Iruña da biztanleko zenbateko txikiena duen hiriburua; hain zuzen, 418 euro per capita. Gainera, aintzat hartutako denbora-tartean funtsa murrizten den hiriburu bakarra da, nahiz eta kontuan hartu behar den 2009an Iruñeko funtsak Toki Inbertsioen Planari zegozkion 9 milioi euro zituela, eta 2018an ez zela izan kontzeptu horrengatik inongo diru-sarrerarik. Eragin hori kontuan hartu ezean, ehuneko 12ko alde positiboa izanen zen, baina, hala ere, zenbateko hori gainerako hiriburuetakoa baino nabarmen txikiagoa da.

- 2018ko biztanleria-tarteen arabera funtsari dagokionez, probintzia-hiriburuari buruzko datuak kontuan hartu gabe, hauek dira emaitzak:

| Biztanleria-tartea        | Nafarroa           |                   | Araba              |                   | Bizkaia            |                   | Gipuzkoa           |                   |
|---------------------------|--------------------|-------------------|--------------------|-------------------|--------------------|-------------------|--------------------|-------------------|
|                           | Batez beste funtsa | Udalerririkopurua | Batez beste funtsa | Udalerririkopurua | Batez beste funtsa | Udalerririkopurua | Batez beste funtsa | Udalerririkopurua |
| 30.001 eta 40.000 bitarte | 10.776.408         | 1                 | -                  | 0                 | 19.853.164         | 1                 | 27.583.605         | 1                 |
| 18.000 eta 23.000 bitarte | 4.908.430          | 3                 | 12.507.936         | 1                 | 12.085.353         | 1                 | 13.773.528         | 4                 |
| 13.000 eta 17.999 bitarte | 3.851.922          | 2                 | -                  | 0                 | 10.600.237         | 5                 | 10.597.656         | 6                 |
| 8.500 eta 12.999 bitarte  | 2.747.317          | 5                 | 8.627.887          | 1                 | 7.345.716          | 4                 | 7.407.781          | 7                 |
| 7.000 eta 8.499 bitarte   | 2.130.129          | 7                 | -                  | 0                 | 5.179.944          | 9                 | 5.923.347          | 1                 |
| 5.800 eta 6.999 bitarte   | 1.979.798          | 2                 | -                  | 0                 | 4.304.768          | 2                 | 4.346.273          | 8                 |
| 4.700 eta 5.799 bitarte   | 1.853.775          | 2                 | 3.688.071          | 1                 | 3.679.804          | 2                 | 3.816.445          | 3                 |
| 4.000 eta 4.699 bitarte   | 1.232.128          | 3                 | -                  | 0                 | 2.952.723          | 7                 | 2.908.796          | 2                 |
| 3.500 eta 3.999 bitarte   | 1.092.587          | 9                 | -                  | 0                 | 2.521.923          | 2                 | 2.686.025          | 2                 |
| 3.000 eta 3.499 bitarte   | 1.097.974          | 2                 | 2.630.471          | 2                 | 2.218.031          | 2                 | -                  | 0                 |
| 2.500 eta 2.999 bitarte   | 879.437            | 10                | 4.119.877          | 2                 | 1.967.446          | 5                 | 2.032.062          | 2                 |
| 2.000 eta 2.499 bitarte   | 804.398            | 13                | 2.339.826          | 1                 | 1.583.964          | 3                 | 1.469.377          | 5                 |
| 1.500 eta 1.999 bitarte   | 587.188            | 9                 | 1.569.359          | 5                 | 1.213.294          | 6                 | 1.137.663          | 6                 |
| 1.000 eta 1.499 bitarte   | 500.079            | 14                | 1.218.617          | 7                 | 1.016.475          | 14                | 895.304            | 5                 |
| 500 eta 999 bitarte       | 297.554            | 36                | 1.143.425          | 12                | 674.828            | 17                | 540.308            | 9                 |
| 400 eta 499 bitarte       | 191.564            | 11                | 433.439            | 2                 | 487.486            | 9                 | 386.033            | 4                 |
| 300 eta 399 bitarte       | 188.037            | 19                | 876.300            | 3                 | 379.550            | 6                 | 310.391            | 5                 |
| 200 eta 299 bitarte       | 139.737            | 28                | 245.988            | 8                 | 339.973            | 5                 | 241.665            | 8                 |
| 100 eta 199 bitarte       | 69.607             | 53                | 151.552            | 5                 | 244.723            | 2                 | 191.282            | 6                 |
| 50 eta 99 bitarte         | 45.198             | 27                | -                  | 0                 | -                  | 0                 | -                  | 0                 |
| 49 arte                   | 26.419             | 15                | -                  | 0                 | -                  | 0                 | -                  | 0                 |

Ikus daitekeenez, biztanleria-tarte guztiek jasotako funtsean ere oso alde nabarmenak daude Nafarroaren eta EAeko probintzietako edozeinen artean, eta Foru Komunitatearen kasuan jasozten diren zenbatekoak nabarmen txikiagoak dira.

### **Funtsak egiten duen ehunekoa erkidegoko Administrazioaren diru-sarrerren 1. eta 2. kapituluaren aitorturiko eskubide garbietan.**

Aztertu dugu funtsak zer ehuneko egiten duen bai Nafarroako bai EAeko diru-sarrerren 1. eta 2. kapituluaren aitorturiko eskubide garbietan, eta hona emaitza:

|                   | 2009         | 2010         | 2011         | 2012         | 2013         | 2014         | 2015         | 2016         | 2017         | 2018*        |
|-------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Nafarroa          | 7,77         | 7,95         | 6,87         | 7,63         | 7,25         | 7,06         | 6,82         | 6,58         | 6,06         | 6,72         |
| Araba             | 10,47        | 11,96        | 10,73        | 11,64        | 10,41        | 11,26        | 11,50        | 10,80        | 11,12        | 10,65        |
| Bizkaia           | 12,91        | 13,61        | 13,21        | 13,75        | 12,92        | 12,73        | 12,43        | 12,45        | 11,90        | 12,07        |
| Gipuzkoa          | 10,94        | 11,87        | 10,86        | 11,54        | 11,38        | 11,72        | 11,75        | 11,75        | 11,10        | 11,47        |
| <b>EAE (osoa)</b> | <b>11,44</b> | <b>12,48</b> | <b>11,60</b> | <b>12,31</b> | <b>11,57</b> | <b>11,91</b> | <b>11,90</b> | <b>11,67</b> | <b>11,37</b> | <b>11,40</b> |

\* Aipaturiko kopuruak lortu dira behin-behineko aitorturiko eskubide garbietatik eta Estatuari eginiko ekarpenetatik, ekitaldi horretako kontuak behin betikoz onetsi arte.

2018an, Nafarroan, funtsa da Foru Administrazioaren diru-sarrerren 1. eta 2. kapituluaren aitorturiko eskubide garbien ehuneko 6,72, eta zenbateko hori nabarmen txikiagoa da EAeko probintzietatik edozeinetakoaren aldean, horietan ehuneko 11,40 egiten baitu batez beste urte horretan. Balioen alde hori aztertutako aldiko urte guztietan mantentzen da.

### **Toki ogasunei funtsa banatzeko formula**

Txosten honen II. atalean jada azaldu dugu transferentzia arruntetarako funtsa Nafarroako toki ogasunei banatzeko formula.

EAEn, funtsa banatzeko erabilitako irizpide eta aldagaiak desberdinak dira aztertzen ari garen probintziaren arabera. Arabaren kasuan, bada transferentzia arruntetarako funts bat eta, bestalde, kapital-transferentzien funts bat; aldiz, Bizkaian eta Gipuzkoan funts bakarra dago. Edonola ere, behin zehaztuta aldundi bakoitzerako funtsaren zenbatekoa, hura banatzen da hurrengo orrialdeko koadroan azaltzen den moduan:



| Araba   |   |
|---|---|
| Zuzkidura   | Banaketaren irizpide eta aldagaiak  |
| Transferentzia arruntetarako funtsa: Lurraldearen baliabideen % 52,8* | <p>1) Urtero zehazten da aldunditik toki entitateetara eskualdaturiko zerbitzuengatikoko parte-hartzea (a)</p> <p>2) 67.614 euroko parte-hartze finkoa kuadrilla bakoitzerako (hainbat udalerrik osatutako toki-erakundea) (b).</p> <p>3) Kenketa honen emaitza: Baliabideen % 52,8 - (a) - (b), honela bideratzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• % 27 udalerrri, kontzeju eta kuadrillentzako oinarritzako partaidetza gisa, zerbitzu jakin batzuk finantzatzeko, gehienbat biztanleriaren arabera (% 70eko haztapena) eta biztanleriaren dispersio indizearen arabera (% 30eko haztapena) banatzen direnak.</li> <li>• % 73 udalerrientzako partaidetza osagarri gisa. Parametro hauen arabera banatzen dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Zenbateko finko bat: 21.035 udal bakoitzeko.</li> <li>b) Banatzeko % 73tik kentzen da aurreko puntuaren arabera esleitutako kopurua, eta emaitza banatzen da irizpide hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"> <li>• % 59, biztanleriaren arabera.</li> <li>• % 12,25, biztanleriaren arabera, soilik 1.000 biztanletik gorako udalerrientzat.</li> <li>• % 9,5, biztanleriaren arabera, soilik 5.000 biztanletik gorako udalerrientzat.</li> <li>• % 9,25, biztanleriaren arabera, soilik 15.000 biztanletik gorako udalerrientzat.</li> <li>• % 5, biztanleriaren arabera, soilik 50.000 biztanletik gorako udalerrientzat.</li> <li>• % 3 Gasteizentzat.</li> <li>• % 2 Egonkortasun Funtserako.</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> |

| Gipuzkoa                        |  |
|---------------------------------|--|
| Zuzkidura                       | Banaketaren irizpide eta aldagaiak   |
| Lurraldearen baliabideen % 52,8 | <p>Funtsaren zenbatekoa parametro hauen arabera banatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• % 90, biztanleriaren arabera.</li> <li>• % 3,5, biztanleriaren arabera, ahalmen fiskalaren arabera ponderatuta.</li> <li>• % 3, biztanleriaren arabera, udal errentaren alderantzizkoaren arabera ponderatuta.</li> <li>• % 2,15 Donostiarentzat.</li> <li>• % 1,2 1.100 biztanle baino gutxiagoko udalerrientzat, zeina banatzen baita biztanleria-tarte bakoitzeko zenbateko finko hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"> <li>84.142 euro, 200 biztanle arteko udalerriak.</li> <li>72.122 euro, 201etik 400 biztanle arteko udalerriak.</li> <li>60.101 euro, 401etik 600 biztanle arteko udalerriak.</li> <li>36.061 euro, 601etik 1.000 biztanle arteko udalerriak.</li> <li>24.041 euro, 1.001etik 1.100 biztanle arteko udalerriak.</li> </ul> </li> <li>• % 0,15, EUDEL-en finantzaketarako.</li> </ul> |

| Bizkaia                       |  |
|-------------------------------|--|
| Zuzkidura                     | Banaketaren irizpide eta aldagaiak   |
| Lurraldearen baliabideen % 56 | <p>1) % 38 inguru Bilborentzat.</p> <p>2) % 0,15, EUDEL-en finantzaketarako.</p> <p>3) % 0,75 ustekabeetarako.</p> <p>4) Gainerako parametro hauen arabera banatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zenbateko finko bat, 81.137 eurokoa, udal bakoitzerako.</li> <li>• Gainerakoa jarraibide hauen arabera banatzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>a) % 80, biztanleriaren arabera.</li> <li>b) % 13, biztanleriaren arabera, ahalmen fiskalaren arabera ponderatuta.</li> <li>c) % 7, gastu adierazle batzuen arabera, ondokoak kontuan hartuta: <ul style="list-style-type: none"> <li>o % 60, eskola-unitateak.</li> <li>o % 18, langabezia tasa.</li> <li>o % 18, udal dispersioa.</li> <li>o % 4, hondartza izatea.</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> |

\* Gainera, Arabak lurraldeko baliabideen ehuneko 4,2 bideratzen du kapital transferentzia finalistetarako.

Ikusten denez, alde nabarmenak daude EAEko probintzien artean ere, bai eta horien eta Nafarroaren artean ere. Hala ere, badira bat datozen puntu batzuk, eta horien artean nabarmendu nahi ditugu probintzia-hiriburuei zenbateko finko bat esleitzea eta biztanleria aintzat hartzea funtsa banatzeko aldagai funtsezko gisa.

Horrekin lotuta, esan behar dugu Gipuzkoako araudiak ezartzen duela funtsaren ehuneko 90 banatuko dela biztanleriaren zuzeneko proportzioan, halako moduz non udalerriek ezin izanen duten jaso kontzeptu berdinegatik biztanleria kopuruaren arabera hurrengo udalerriak baino zenbateko txikiagoa. Gure ustez, irizpide hori arrazoizkoa da, Nafarroan ordea ez da aplikatzen araudian ezarritako berme-sistema dela-eta, eta horrek zenbait inkoherentzia sortzen ditu. Hona hemen adibide batzuk:

| Udalerria     | Biztanleak<br>01-01-2017 | 2017ko funtsa | 2017ko diru-<br>sarrera arruntak<br>transferentzia<br>arruntetarako<br>funtsik gabe | 2017ko EIOZa eta<br>gainbalioak |
|---------------|--------------------------|---------------|---|---------------------------------|
| Eguesibar     | 20.417                   | 3.485.677     | 9.307.346   | 1.395.371                       |
| Barañain      | 20.124                   | 5.692.907     | 9.867.256   | 470.539                         |
| Zizur Nagusia | 14.686                   | 3.453.185     | 8.214.271   | 843.476                         |
| Lizarra       | 13.707                   | 3.757.294     | 7.845.741   | 848.886                         |
| Antsoain      | 10.752                   | 2.595.819     | 5.738.941   | 562.208                         |
| Tafalla       | 10.638                   | 3.081.344     | 6.623.004   | 325.601                         |
| Aranguren     | 10.239                   | 1.817.953     | 7.996.172   | 1.990.427                       |
| Berriozar     | 9.874                    | 2.370.405     | 3.771.328   | 262.488                         |
| Atarrabia     | 10.217                   | 2.728.711     | 6.052.304   | 760.217                         |

Alde nabarmenak daude antzeko biztanleria duten udalerriek jasotako funtsean, nahiz eta, kasu batzuetan, diru-sarrera arruntan eta EIOZaren eta gainbalioen arteko aldea ere esanguratsua den. Hala, esaterako, Atarrabiak edo Berriozarrek jasotzen duten funtsaren zenbatekoa Arangurenak jasotakoa baino handiagoa da, baina haien diru-sarrera arruntak (transferentzia arruntetarako funtsa kontuan hartu gabe) eta EIOZetik eta gainbalioetatik eratorriak ere Arangurenak baino txikiagoak dira.

Halaber, egiaztatu dugu Gipuzkoan eta Bizkaian biztanleriaren eta funtsaren zenbatekoaren bilakaera bide beretik doazela, eta horrek logikoa eta egokia dirudi, nahiz eta Nafarroan, esan dugun bezala, hori ez den gertatzen araudian aurreikusitako berme-sistema dela-eta.

#### IV.4. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

Azken batean, Nafarroan, 2009-2018 aldian, funtsa araudian ezarritako irizpideen arabera zehaztu eta banatu da.

Transferentzia arruntetarako funtsa kudeatzeko araudian aurreikusita berme-sistemaren eraginez, funtsa ehuneko bat inguru bakarrik banatzen da formularen arabera, eta horrek erabilgarritasuna kentzen dio; sistema horren aplikazioak kaltetu ditu, oro har, biztanleriaren hazkunde nabarmen izan duten entitateak, horien diru-sarrera arruntak ere nabarmen hazi badira ere.

Duela gutxi onetsitako toki administrazioaren erreformari buruzko foru legeak aldaketak proposatzen ditu funtsa zehazteko eta banatzeko moduan, eta banaketarako baldintza izanen da, hein batean, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza bezalako zerbitzu jakin batzuen eskumen-esleipena, bai eta zerbitzuak finantzatzeko modulu batzuen ezarpena ere, txosten hau idazteko garaian ez badira kalkulatu ere. Ganberak uste du aldaketa horiek arrazoizkoak eta egokiak direla, transferentzia arruntetarako funtsa ekitate, justizia eta proportzionaltasun irizpideen arabera banatzeko.

Nafarroan, funtsaren zuzkidura EAEn baino nabarmen txikiagoa da, eta banaketarako irizpi-deak desberdinak dira bi erkidegoetan, bai eta EAeko hiru probintzien artean ere.

Egindako lanaren ondorioak ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

- *Berriki onetsitako araudian proposaturiko aldaketak ezartzea toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa kudeatzeko, toki entitateen lankidetzarekin.*
- *Zerbitzuen eskumen-esleipena ezartzea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean aurreikusita ez dagoen kasuetan.*
- *Transferentzia arruntetarako funtsa banatzeko formularen sarturiko aldagaien eta haien haztapenen berrikusketa egitea kontuan hartuta toki entitateen gastu eta diru-sarrerei buruzko informazio gaurkotua.*
- *Transferentzia arruntetarako funtsean beharrezkoak diren aldaketak sartzeko aukera aztertzea, halako moduz non funtsa biztanleriaren irizpidearen arabera esleitzerakoan udalerriek ezin izanen duten jaso kontzeptu berdinegatik biztanleria kopuruaren arabera hurrengo udalerririk baino zenbateko txikiagoa.*
- *Udalerririk bakoitzeko finantzaketa-zenbateko finko bat ezartzeko aukera aztertzea.*
- *Aztertzea komenigarria ote den gaur egungo berme-sistema mantentzea, araudian proposatutako aldaketak ezarri ostean.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko martxoaren 26an  
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

**1. ERANSKINA. FUNTSAREN KUDEAKETARI 2009-2019 ALDIAN APLIKAGARRI ZAION OINARRIZKO ARAUDIA.**

- Azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legea, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezarri zituena.

- 18/2011 Foru Legea, azaroaren 30ekoa, Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2011ko eta 2012ko aurrekontu-ekitaldietarako ezarri zituena

- 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako

- 17/2014 Foru Legea, irailaren 25ekoa, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

- 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen.

- 30/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

- 24/2015 Foru Legea, abenduaren 28koa, ondoko foru lege hau aldatzekoa: 21/2014 Foru Legea, azaroaren 12koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa formula 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen.

- 21/2016 Foru Legea, abenduaren 21ekoa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2017ko aurrekontu-ekitaldirako ezartzen dituen.

- Abenduaren 27ko 18/2017 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen 2018. eta 2019. urteetarako.


- Otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

**2. ERANSKINA. TOKI OGASUNEK NAFARROAKO TRIBUTUETAN PARTE HARTZEKO DUTEN FUNTSA BANATZEKO FORMULAREN OSAGAIEN LEGENDA**

- FTC da udalerrri bakoitzaren banatze indizea.
- PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adierazten duen ehunekoa, Nafarroa osoaren biztanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.
- PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera garbia adierazten duen ehunekoa, Nafarroa osoaren hiri azalera osoarekin alderaturik, Iruña kenduta. Hiri azalera garbia da planoaren araberrako azalerraren (azalera grafikoa) eta lurzati batuketaren modura hartutako azalerraren (azalera alfanumerikoa) arteko aldea.
- PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen ehunekoa, Nafarroa osoan 65 urte edo gehiago dituzten biztanle guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.
- PPINM da udalerrri bakoitzeko etorkinen ehunekoa, Nafarroako osoko etorkin kopuruarekin alderatuta, Iruña kenduta.
- PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indizearen alderantzizkoa adierazten duen ehunekoa, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune bakoitzeko populazioak populazio osoarekin alderaturik osatzen duen ehunekoen karratuen batura, Nafarroa (Iruña kenduta) osoko populazioaren kontzentrazioaren indizeen alderantzizkoen baturarekin alderaturik.
- PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoa, Nafarroako osoaren azalerrarekin alderatuta, Iruña kenduta.
- PCTU da udalerrri bakoitzaren hiri-lurren gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarri doitu adierazten duen ehunekoa, Nafarroa osoan tributu horren likidazio-oinarri doitu baturak egiten duenarekiko, Iruña kenduta. Oinarriak merkatu balioen araberr doitzen dira koefiziente zuzentzaile baten bidez; koefiziente horrek balioak handitzen ditu merkatu balioekiko duten urruntasunaren araberr. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak finkatuko du koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzentzat.
- PCTR da udalerrri bakoitzaren landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren likidazio-oinarria adierazten duen ehunekoa, Nafarroa osoari dagozkion tributu horren likidazio-oinarri guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.
- PIAE da udalerrri bakoitzaren jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten duen ehunekoa, Nafarroa osoari dagokion jarduera ekonomikoen gaineko zergaren baturarekin alderaturik, Iruña kenduta; betiere, oinarri-kuotatzat hartzen da nazio, lurralde nahiz udal esparruko kuoten batura, udal errekgua kenduta.
- PIVTM da udalerrri bakoitzean Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak adierazten dituen ehunekoa, Nafarroa osoari dagokion zerga honen eskubide likidatu guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta.
- PVCC da udalerrri bakoitzean herri-lurren katastroko balioa adierazten duen ehunekoa, Nafarroa osoko udalerrrietako balioen guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta. Udal-mugartean kontzejuak dituzten udalen kasuan, kontzejuetan kokaturik ez dauden herri-lurren balioa baizik ez da hartzen kontuan.


## 3. ERANSKINA. UDALERRI BAKOITZEKO ADIERAZLEEN BILAKAERA 2009-2017 ALDIAN

| Adierazlea  | Iruña       |             |             |             |             |             |             |             |             |             | Aldaketa,<br>ehunekotan<br>2017/2009 |
|---|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------------------------------|
|   | 2009        | 2010        | 2011        | 2012        | 2013        | 2014        | 2015        | 2016        | 2017        |             |                                      |
| Transferentziatarako funtisa                                    | 74.118.323  | 74.637.151  | 75.156.174  | 75.631.318  | 77.219.575  | 78.763.967  | 78.763.967  | 80.260.482  | 81.303.866  | 81.303.866  | 10                                   |
| Funtzionamendu gastuak  | 183.076.921 | 175.070.476 | 173.822.154 | 163.660.202 | 169.664.213 | 169.898.662 | 170.438.867 | 174.507.642 | 178.456.623 | 178.456.623 | -3                                   |
| Diru-sarrera arruntak<br>(transferentziatarako funtsik<br>gabe) | 125.562.473 | 114.331.308 | 119.151.183 | 113.114.804 | 111.950.207 | 113.147.961 | 117.726.706 | 124.404.888 | 119.676.594 | 119.676.594 | -5                                   |
| Tributu bidezko diru-<br>sarrerak                               | 91.136.364  | 84.010.398  | 93.386.796  | 86.190.374  | 85.812.150  | 85.868.370  | 88.778.944  | 94.928.067  | 90.211.488  | 90.211.488  | -1                                   |
| Aurrezki gordina  | 16.603.875  | 13.897.983  | 20.485.203  | 25.085.919  | 19.505.568  | 22.013.266  | 26.051.806  | 30.157.728  | 22.523.838  | 22.523.838  | 36                                   |
| Biztanleak  | 198.491     | 197.488     | 197.932     | 197.604     | 196.955     | 196.166     | 195.853     | 195.650     | 197.138     | 197.138     | -1                                   |




**Tutera**

|   | 2009       | 2010       | 2011       | 2012       | 2013       | 2014       | 2015       | 2016       | 2017       | Aldakuntza-<br>ren ehune-<br>koa<br>2017/2009 |
|---|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|---|
